

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA

Gradua: Gizarte Langintza

**INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO
TEKNOLOGIA BERRIEN ERAGINA
LGTBI+ PERTSONEN HARREMANETAN**

Hurbilpen bat Bilboko errealitatetik

Ikaslea: Gaizka Villar Suarez

Irakaslea: Irantzu Mendia Azkue

Ikasturtea: 2018-2019

Deialdia: Iraila

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
1.1. Aztergaia	1
1.2. Justifikazioa	2
1.3. Helburuak	3
1.4. Ikerketa galderak	3
1.5. Metodologia	4
1.6. Lanaren estruktura	9
2. LGTBI+ KOLEKTIBOAREN EZAGUTZARI HURBILPENA	10
2.1. LGTBI+ izendapenaren esanahia	10
2.2. LGTBI+ mugimenduaren bilakaera hurbila Espainiar Estatuan eta Euskal Herrian	11
2.3. LGTBI+ kolektiboen eskubideetan eragina duen marko legala	16
2.3.1. Araudia nazioarte eta Europa mailan	16
2.3.2. Araudia Espainiar Estatu eta Euskal Herria mailan	17
2.4. Gizarte Langintza LGTBI+ esparruan	21
3. LGTBI+ PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK ETA HORIETAN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIA BERRIEN ERAGINA	23

3.1. Sozializazio prozesuan harremanen garrantzia	23
3.2. Informazio eta komunikazio teknologia berrien eragina harreman ereduaren aldaketan	25
4. LGTBI KOLEKTIBOAN EMATEN DIREN HARREMANAK BILBON	29
4.1. Testuingurua	29
4.2. LGTBI+ pertsonen arteko harremanak belaunaldi ezberdinetan	30
4.3. Informazio eta komunikazio teknologia berriei buruz egiten den balorazioa	38
4.3.1. Abantailak eta desabantailak	38
4.3.2. Errealitatea vs. Irudia	41
4.3.3. Kolektiboan inpaktua	42
5. ONDORIOAK	44
6. BIBLIOGRAFIA	47

1. SARRERA

1.1. Aztergaia

Lan honen aztergaia LGTBI+ pertsonen arteko harreman sexu-afektiboetan teknologia berriek izan duten eragina ezagutzea da, eta zehazki eragina horren ondorioz harreman mota horietan aldaketak egon badiren, eta hala bada, nolakoak diren harreman berriak argitzea da. Azterketa hau Bilbon egoitza duen ALDARTE elkartearen erabiltzaile izan diren edo diren pertsonen kasuan egingo da.

LGTBI+ akronimoaren barruan sexu,-genero,-desira,-aniztasuna barnebiltzen dituen pertsona oro aipatzeko erabiliko dugu: pertsona gay, lesbiana eta bisexualak; pertsona transak eta pertsona intersexualak sartzen dira izendapen horren barruan. Akronimo hau erabiliko dugu mundu mailan gehien erabiltzen dena delako eta ulertzen dugulako “+” barruan aipatuta ez dauden errealitateak barnebiltzen dituela (Mujika, 2019: 6).

Testuinguruen eta garaiaren arabera pertsonen artean harremantzeko era aldatu egiten da. Gaur egun teknologia berrien agerpenarekin eta mundu digitalizatu batean gero eta gehiago bizi garen une honetan, abiadura handiarekin aldatuz joan dire gure harremantzeko moduak. Ildo horretan, garrantzitsua iruditu zait teknologia berrien agerpenak LGTBI+ kolektiboko pertsonen harremantzeko moduan izan duen eragina islatzea, haientzat ondorio positiboak edo negatiboak ekarri dituen jakiteko. Batzuentzat abantaila bat izan daitekeelako, baina beste batzuentzat isolatuagoak zein ezkutatuagoak bizitzeko bide bat. 1980-1990ko hamarkadara arte kolektibotasun izaera estuago batean harremantzen ginen. Orain aldiz indibidualizaziorantz eta harreman indibidualagoetara goaz, jendartearen talde edota azpitalde izatearen usteari utzi gabe.

Aztergaiaren eremu geografikoari dagokionez, Bilbo mailan zentratuko gara, esan bezala ALDARTE Bilbon kokatzen delako eta bertan aritzen naizelako gizarte langile gisa. Zehazki ALDARTE elkartetik pasa diren kide edo parte hartzaileen bizipenak eta testigantzak jasoko ditugu ikerlan honetarako. Adin

tarte zabala aztertuko dugu, batez ere denboran zehar harremanetan eman den aldaketa antzeman ahal izateko eta belaunaldi ezberdinetako pertsonen arteko harremanak nola garatu diren azaltzeko asmoz. Horregatik 14 eta 20 urte bitarteko nerabeak eta gaztetxoak izango ditugu alde batetik, 21 eta 35 urte bitarteko gazteak bestetik, eta 36 eta 65 urte bitarteko nagusiak azkenik.

1.2. Justifikazioa

Ikerlan hau proposatzeko arrazoi anitz daude. Lehenik, LGTBI+ kolektiboarekiko dudan lotura profesionala aipatu beharra dago, lan egiten dudan elkarteak baita ALDARTE, gay, lesbiana eta pertsona transen artea zentroa.

Bigarrenik, badago ere historikoki LGTBI+ kolektiboarekiko zor soziala jendartean, hau da, bada garaia gay, lesbianak eta pertsona transak behingoz askatasunean bizi, sentitu, desiratu dezatela inolako aurreiritzi eta jazarpenik gabe.

Hirugarrenik, azken urteetan LGTBI+ mugimenduak kolektibo horren eskubideen aldeko defentsan izandako oihartzunaren gorakada aipatu behar dugu. Horrekin batera, esparru honetan lanean jarraitzeko konpromisoa badut. Jendarte justuago baten bila ari garen heinean, mugimendu feministaren urte luzeetako borrokaren eta errealitatearen azterketan genero perspektiba txertatzearen ondoriozko neurri positibo batzuk garatuz joan diren bezala, zehazki -sexu-genero-aniztasun- esparrua lantzen jarraitzeko gakoarekin pentsatuta dago ere lan hau.

Horrela, LGTBI+ mugimenduak egindako lanari zein profesional asko esparru honetan egindako lanari ekarpen gehigarri bat egitea nahi da lan honen bidez, sentsibilizazioa, kontzientzia zabaltze eta jarrera ezkorren prebentzioaren prozesua jarraitu hain zuzen. Jendartean errespetu handiagoz jokatu bagenu, ume eta gazte askoren buru hausteak bere desirekiko edota generoarekiko gutxitzen joango lirateke. Horretarako, apurka-apurka genero bikotasuna hausten joan behar gara eta gero eta gehiago genero aniztasunean hezituak izan. Hala, genero anitzek bere lekua izango dute eta onarpen osoaz pertsona

asko lasaiago bizitzen hasiko dira. Jendartea gero eta gehiago aniztu egiten den garai honetan, aniztasun horretan bada beste esparru bat, LGTBI+ kolektiboarena. Horregatik, kolektibo honi buruz ezagutza gehiago izatera begira burutzen den ekarpen bat bezala aurkezten da ikerlan hau.

1.3. Helburuak

Lan honek dituen helburuak hurrengoak dira:

- LGTBI+ kolektiboan ematen diren harreman -sexu-afektiboak- belaunaldi ezberdinen arabera aldatu diren aztertzea.
- LGTBI+ kolektiboan harremanak izateko moduan informazio eta komunikazio teknologia berriek nolako eragina izan duten ezagutzea.
- LGTBI+ kolektiboaren errealitatea eta sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko ezagutza zabaltzearekin batera, Gizarte Langintzako jardunbidea esparru honetara gehiago hurbiltzea.

1.4. Ikerketa galderak

Lan honen abiapuntu bezala honako ikerketa galderak aukeratu dira:

- Nola aldatu dira LGTBI+ kolektiboan harremantzeko moduak, alderatzen baditugu 1980-1990 harmakadak eta 2000-2010 hamarkadak?
- LGTBI+ pertsonentzat, informazio eta komunikazio teknologia berriek haien harremanetan askatasun gehiago izatera eraman dituzte, edo aldiz, indibidualizaziora eta beraz, kolektibo gisa indar gutxiago izatera?
- Teknologia berrien erabilerak, LGTBI+ kolektiboan isolamendu egoeran dauden pertsonen isolamendu hori bera kronifikatzera eraman dute kontaktu fisiko-afektibo eza areagotzen dutelako, edo alderantziz, pertsona gehiago ezagutu eta gehiago harremantzeko bideak zabaldu dizkie?

1.5. Metodologia

Lan hau garatzeko azterketa bibliografikoaz eta lan kualitatiboak baliatu gara.

Azterketa bibliografikoari dagokionez, hainbat dokumentu kontsultatu dira LGTBI+ kolektiboari dagozkionak, besteak beste, historiari erreferentzia egiten diotenak. Hau lagungarria izan da kolektiboak historian zehar izan duen bilakaeraz ohartzeko eta 1980ko eta 1990eko hamarkadei hurbilpena burutzeko. Honetarako, ALDARTERen *“Begirada ausartak I eta II”*. Baita ere, 2018ko urriak 10ean Leioan, EHUko Bizkaiko Campusean, egindako I. LGTBI+ Historiari buruzko jardunaldian aipatutako bizipenekin eta informazioarekin. Erabilitako beste dokumentu batzuk izan dira: Raúl Andrés Noir psikologiaren artikulua *“Sobre el movimiento LGHBT (lésbico-gay, homosexual-bisexual, transgénero)”*, Paco Vidarteren *“Ética Marica”, “Homofobia y calidad de vida de Gay y Lesbianas”*, eta ALDARTEK egindako *“Lesbianas con recursos. Lesbianak legez eta bidez”* besteak beste.

Zuzenbide esparruari dagozkion iturrien artean legeak, dekretu, plan, etab. kontsultatu dira, batez ere LGTBI+ kolektiboaren eskubide formaletan aurrera pausuak emateko baliagarriak izan direnak.

Gizarte harremani buruzko dokumentazioari erreferentzia eginez, honako dokumentuak kontsultatu da, besteak beste: *“El proceso de socialización”, “La relación social como categoría de las Ciencias Sociales”*. Hauek, harremanak zer diren eta nola ematen diren azaltzeko asmoz erabilitakoak dira. Beste dokumentu batzuk, *“Intercambio sexual anónimo en espacio públicos. Crouising”* kasu, harremantzeko era anitzak ikustaraztera begira erabilitakoak dira. Harremanetan zaintzaz aritzeko, feminismoak batez ere garatu izan duen kontzeptua izanik, eta lan honen genero perspektibarekin bat egiteko asmoz, *“Los cuidados, un concepto central en la teoría feminista”* edota *“Pedagogía de los cuidados. Aportes para su construcción”* dokumentuak erabili ditugu.

Harremanen ildotik, teknologia berrien esparrura hurbiltzeko azterketak beste zenbait artikulua kontsultatu dira, adibidez: *“Las redes y el armario cómo la tecnología ha ayudado al colectivo LGTBI+”*. Atal honetarako dokumentazioa,

teknologia berriek LGTBI+ kolektiboaren kasuan eragin berdinak, antzekoak edota ezberdinak izan dituzten ezagutzeko erabili dugu.

Bukatzeko, Gizarte Langintzatik LGTBI+ esparrua nola lantzen den jakiteko, zer nolako esku hartzeak egin daitezkeen edota LGTBI+ kolektiboa kontuan hartzen den azaltzeko dokumentazioa ditugu, horien artean eta batez ere, Jose Antonio Langaritaren "*Diversidad sexo genérica y trabajo social*".

Azterketa bibliografikoaren fasea burutu ostean, **sei banakako elkarrizketa eta talde elkarrizketa bat** burutu ditugu metodologia kualitatiboa garatuz. Zehazki, ALDARTE elkartean aritzen diren profesionalak eta baita elkartearen talde ezberdinetan partaide diren pertsonak elkarrizketatu ditugu. Elkarrizketatuak izan diren pertsonen azalpena testuinguratzeko, ALDARTEn dauden taldeei buruzko informazioa emango dugu.

GAM (Grupo de Apoyo Mutuo) Taldea: Aldarte sortu zen garaian sortu zen talde hau, orain dela 25 urte. Hasieran talde itxia zen, 8 partaidekoa, aste beteko maiztasunarekin biltzen zen eta 3 hiletik 6 hilera iraupena izaten zuen, taldearen ezaugarrien arabera. Nahiz eta gay, lesbiana eta trans pertsonentzako esparrua izan, gay eta lesbianak ziren nagusiki erabiltzaileak. Denbora eta testuinguruaren aldaketak, talde hau moldatzera eraman zuen, moldaketa nahiko izan ditu partaide, maiztasun eta epeen aldetik. Azken urteetan taldea irekia da, parte hartzaile kopurua ez dago mugatua, eta soilik adin tartea kontuan hartzen da. 20 urtetik gorako gay, lesbiana eta trans pertsonentzako taldea da, astero biltzen dena.

Gainerako taldeak, GAM taldetik eratorriak edota GAM taldetik pasatako pertsonen beharretara eta nahietara zein testuinguru berrietara moldatzeko beharretik sortu ziren.

Gazte Taldea: Talderik berrienetakoa da hau, orain dela 5 urte sortua. Aldartera bertaratzen ziren gazteen beharrak bermatzera begira sortu zen. 14 urtetik 18 urte arteko gazteak biltzeko esparrua da. Gazteen egoeraz, problematikaz, bizipenez... hitz egiteko eta sozializatzeko esparrua da. Hilabeteko maiztasuna duen taldea da eta batz bestea 15 bat gazte biltzen ditu.

Emakume Taldea: Emakumeentzako^{*1} espresuki sortua den taldea da. GAM taldera joaten ziren emakumeak behar hau islatu zuten, hots, beren esparru propioa izatekoa, eta GAM taldetik berezitutako egoera zein errealitateak partekatuzera bideratua izan zen taldea. Orain dela 10 urte baino gehiago sortu zen taldea hau. Parte hartzaile kopurua aldakorra izaten da, urte batzuetan 10 emakumetik gora bildu izan dira eta beste batzuetan oso gutxi izan dira, edo maiztasuna ez da mantendu. Azken boladan, bi asteroko maiztasuna duen taldea izan da.

Zaharrok Taldea: Gazteekin zein emakumerekin bezala, adineko LGTBI+ parte hartzaileak beren esparrua izateko proposamenari irtenbidea emateko sortutako taldea da. Talde hau esanguratsua da, adineko LGTBI+ pertsonen ikusgarritasuna bultzatzera asko lagundu zuen taldea izan baitzen. Bertan 55 urtetik gorako LGTBI+ pertsonak parte hartzen dute. Orain dela 12 urte inguru sortu zen. Hamabostero biltzen den taldea da.

Talde hauek ALDARTEn gaur egun aktibo ari dira eta ikerlanerako garrantzitsua den aniztasuna eskaintzen dute. Talde hauetako bakoitzean, pertsona espezifikoek elkarriketa sakonak egin zaizkie, hurrengo lerroetan, azalduko direnak.

Lehen eta bigarren elkarriketak, ALDARTEko hiru profesionalei egin zitzaizkien. Hasteko, **A.V.** 63 urteko eta **L.M.** 60 urteko emakume lesbianak ditugu. Gazteetan herri mugimenduetan parte hartzeaz gain, mugimendu feministan oso gazteetatik parte hartzen hasi ziren. LGTBI+ kolektiboko kezka eta arazo anitzek erantzuteko, ALDARTE elkarteak sortzea erabaki zuten beste taldekide batzuekin batera. Beren jardun osoa, LGTBI+ kolektiboko zein esparru anitzen adierazpen askatasunari eskaini diote. **L.M.**-ren erantzukizun nagusia esku-hartze psikologikoa eta Estatu Espainol mailan azken urteetan oihartzuna hartu duen pertsona transen gaia jorratzea da. **A.V.**k aldiz, ALDARTEKO gainerako proiektuei erantzuteaz gain, beste erakundeekin harremana eta kudeaketa ekonomikoa burutzen du. Aipatu beharra dago **bien esperientzia** LGTBI+ esparrua jorratzen eta astintzen 25 urtez oso lagungarria

¹ “*” Jartzen dugu, emakume izate aniztatan bere burua identifikatzen duten pertsona guztiei erreferentzia egiteko.

izan dela lan honetarako. **L.M**-ri egindako elkarrizketa lehena izan zen, 2018ko abenduaren 10ean egina, hain zuzen psikologia harrerak egiten den ALDARTEko gelan. **A.V**-ri egindako elkarrizketa 2019ko ekainaren 20an ALDARTEko egoitzako bere bulegoan.

Haien burua ezkertiar, feminista eta solidariotzat dute, eta giza eskubideen defendatzaileak dira. Frankismoko azken urteak ezagututakoak dira eta trantsizio garaitik hona eman diren aldaketa sozialen jabe dira, besteak beste LGTBI+ esparruan eman diren eskubideen hobekuntzak eta diskriminazioarekin bukatzeko lege aldaketak..

Hirugarren elkarrizketa ALDARTEko beste profesional bati, **E.Ori**, egin zaio. Gaztetan ALDARTEren elkar laguntza taldetik pasa izan zen, gerora ALDARTEKO elkar laguntza taldeen dinamizazio lanak burutzera igaroz. Horrez gain, ALDARTEn zuzenbideko aholkularitza lana jorratzen du, beste eginkizunekin batera. ALDARTEn 15 urte darama lanean. 45 urteko emakume lesbiana eta kristaua dugu. Bilbon igaro izan ditu urte gehienak, Bilboko LGTBI+ kolektiboarekiko lotura estua izanik. Gaur egun Enkarterriko herri batean bizi arren, Bilbon lanean aritzen da egunero. **E.O** lesbiana eta kristaua izanik, oso interesgarria da sinesmen erlijiosoa duen emakume lesbiana dela eta nola bi esparru hauek elkar batzen ditu bere egunerokotasunean, sexu- eta genero-aniztasunaren beste isla zabal bat ikustaraziz. Elkarrizketa 2019ko ekainaren 24an, astelehena, burutu zen ALDARTEko egoitzako gela zabalean.

Laugarrenik, ALDARTE elkartean lanean dagoen kide berrienetariko bati egin diogu elkarrizketa. Bera **C.R** da, 28 urteko emakume lesbiana (bere hitzetan "*bollera*", aldarrikapen politikotzat hartuta) eta Zarautzerra dugu. **C.R** aukeratzearen arrazoiaren artean honakoak daude: emakume gaztea delako, gaztetatik bere herriko mugimendu feministan eta herri mugimenduan ibilia delako, eta gerora Zarautzeko LGTBI+ kolektiboan aritutakoa da ere. ALDARTEko kidea da orain dela 2 urte. Gainera, bera Gizarte langilea da eta ALDARTEn egin den sexu- eta genero-aniztasuneko gorroto delituen inguruko ikerketan aritu izan da. Elkarrizketa 2019ko uztailaren 9an, asteartea, burutu izan genuen ALDARTEko egoitzako gela zabalean.

Bosgarren eta seigarren elkarrizketatuak, *GAM* taldeko partaideak izandakoak edo direnak ditugu. **I.L.** 35 urteko gazte heldua dugu eta **X.D.** 40 urteko heldua. Gaur egun generoaren eraikuntzarako sistema bitarraren zurruntasuna zalantzan jartzen hasi dira. Beraiek hasiera batean gizon maskulino ez hegemonikotzat hartzen zuten beraien burua, hala ere biek esparru ez bitarrean kokatzen hasiak daudela diote. Gazte esparrua oso ondo ezagutzen dute biek, teknologia berrien aroaren hasiera ezagutu zuten, beraz teknologia berrien erabilerarekin ohituak daude dagoeneko. Berez, teknologia berrien erabilera egiteko dutelako hautatuak izan dira. Lehenengo elkarrizketaturi **I.L.**ri, elkarrizketa 2019ko ekainaren 26an, asteazkena, burutu izan genuen ALDARTEko egoitzako bulego batean. Bigarren elkarrizketuari **X.D.**i, elkarrizketa 2019ko uztailaren 4an, osteguna, burutu izan genuen ALDARTEko egoitzako bulego batean.

Azkenik, talde elkarrizketa burutu dugu lan honetarako, ALDARTEko **Gazte Taldeari** egindakoa hain zuzen. Bertan, 14 urtetik 18 urtera arteko 11 nerabe eta gazte elkarrizketatu dira. Hauek teknologia berriez inguratuta jaio eta hazi egin direnez, bere ikuspuntua ezinbestekoa genuen. Hauetako askok genero bitarra kolokan jartzen dute, batzuk transtzat, transgenerotzat, genero aldakortzat, genero sortzailatzat identifikatzen dira, eta beste batzuk gay, lesbiana eta bisexual bezala. 11 nerabe eta gazte hauetatik 3 gizonezkotzat identifikatzen ziren, beste 3 emakumezkotzat eta 5 trans* esparruan. Talde elkarrizketa 2019ko ekainaren 27an, osteguna, burutu genuen.

Azkenik, beste pertsona asko kontaktatu izan dira elkarrizketak egiteko, baina arrazoi ezberdinak direla medio ezinezkoa izan da haiekin elkartzea.

1.6. Lanaren estruktura

Lan hau bost atal nagusietan banatuta dago. Lehena sarrera honi dagokio, bertan lanaren planteamenduaren ideia nagusiak agertzen dira (aztergaia, justifikazioa, helburuak, ikerketa galderak eta erabilitako metodologia) eta lana kokatzeko balio digu.

Bigarren atala LGTBI+ kolektiboarekiko ezagutzarako da. Horretarako, hurrengo azpiatalak garatzen dira: LGTBI+ izendapenaren esanahia, hurbilpen historiko bat Espainiar Estatuan eta Euskal Herrian kolektiboak izan duen bilakaera hurbila azalduz, legediaren azterketa nazioarte, Europa, Espainiar Estatu eta Euskal Herria mailan, eta Gizarte Langintzak esparru honekin duen lotura.

Hirugarren atalean, sozializazio prozesuan harremanek duten garrantziaz aritzen gara hasteko. Ondoren, lanaren muina izango den informazio eta komunikazio teknologia berriek harremanetan izaten ari diren eraginei hurbilpena egiten diogu, orokorrean eta erreferentzia eginez LGTBI+ kolektiboari.

Laugarren atalak LGTBI+ kolektiboko pertsonen Bilboko hirian garatzen dituzten harremanetara hurbiltzen gaitu. Esan bezala, elkarrizketatuak ALDARTE elkartean partaide direnen artean aukeratu dira. Hasteko, atala testuinguraketa labur batekin hasten da. Geroago, LGTBI+ kolektiboan belaunaldi ezberdinetako pertsonen harremantzeko moduak eta guneak aztertzen dira. Ondoren, pertsona horiek informazio eta komunikazio teknologia berrien erabileraren eraginei buruz duten iritzia aurkezten da, batez ere aspektu jorratuz: abantailak eta desabantailak, errealitatea eta irudiaren artean sortarazten duten aldea, eta sare sozialek kolektiboaren indarrean zer nolako inpaktua izan dezaketen.

Bosgarren atalean ondorioak aurkituko ditugu. Bertan lan honen egilearen azterketa prozesuaren osteko hausnarketak aipatzen dira. Hain zuzen, lan honek dituen ikerketa galderei ematen zaizkien erantzunak garatuko dira. Ondorioen ostean, lanari amaiera emateko erabili den bibliografia agertzen da eta zenbait eranskin, horien artean elkarrizketetarako prestatutako gidoiak.

2. LGTBI+ KOLEKTIBOAREN EZAGUTZARI HURBILPENA

2.1. LGTBI+ izendapenaren esanahia

LGTBI+ kolektiboaz ari garenean, sexu- eta genero-aniztasunari buruz ari gara. Pertsona eta subjektibitate anitz elkar harremandu egiten diren esparru konplexua eta etengabe aldakorra dugu. Izendapen edota nortasun berriak agertzen direnean zaharrak erabiltzeari usten diogu, edo maila pertsonalean zein kolektiboan zentzua izateari usten diote. LGTBI+ izendapena jendarte errealitate ezberdin eta aldakorrei dagokio eta beraz, existitzen den aniztasun honekiko koherente izateko kontzeptuak barnebiltzen dituen pertsonak askotarikoak dira (Mujika, 2019: 22):

- ***Pertsona gay, lesbiana eta bisexualak:*** Pertsona ez heterosexualak zein interes emozionalak, afektiboak, psikologikoak, sozialak eta sexualak genero berekoengana zuzentzen direnean, nahiz eta publikoki adierazita ez egon. Baita hurrengo pertsonak barnebilduko luke talde honek ere: homosexualak, queer (“arraroak” ingelesez), polimaitaleak, “*marikak*”, “*bollerak*”, disidente-sexualak, etab.
- ***Pertsona trans*-ak:*** Transexualak, transgeneroak, trans genero nortasun sortaileak eta genero nortasun igarokorrak, etab. Jaiotzean esleitutako generoa, gorpuzkera, genero rola eta genero adierazpenak zalantzan jartzen dituzten pertsonak osatzen dute talde hau. Lucas Platero (2014) adituaren arabera, trans* hitzak asteriskoarekin erabilia, aurretik aipatutako azpitaldetako pertsonak barnebiltzen ditu. Pertsona hauek sistema bitarraren zurruntasuna kolokan jartzen dute eta gizon edo emakume izatearen irudikapenaren araua hausten dute, esparru honetan dauden bizipen anitzak irudikatuz.
- ***Pertsona intersexualak:*** Jaiotzetiko sexu bikotasun sistema zalantzan jartzen dituzten pertsonak ditugu talde honetan: genital, erreprodukzio

organo, etab. anbiguoekin² jaiotzen direnean, maskulino edota femenino sailkatze erraza ez duten pertsonak dira.

LGTBI+ kolektiboaren izendapena urteekin aldatuz joan da, barnebiltzen dituen talde ezberdinen ikusgarritasuna nabarmenduz joan den heinean. 1970eko hamarkadan Gay-ek batez ere ikusgaitasuna hartu zuten. Izan ere, Stonewalleko matxinada ostean Harrotasun eguna Gay eguna bezala izendatu zen, nahiz eta matxinada horretan lesbianak eta trans pertsonak egon. Urteak pasata eta kolektiboan zeuden errealitate anitzei erantzuteko, kolektiboa LGB (Lesbianak, Gayak eta Bisexualak) bezala izendatzen hasi zen. 1980-1990ko hamarkadetan pertsona transen errealitatea nabarmenagoa egin zen eta hauek ere kolektiboaren parte zirela aldarrikatzen hasi ziren. Horrela, mugimendua LGBT bezala izendatu zen (Mejia Turizo eta Almanza Iglesia, 2010).

Ikusten denez, LGTBI+ kolektiboa osatzen duten pertsonen errealitatea sozialki oso aldakorra eta heterogeneoa da, eta beraz izendapena ere. Horregatik, 2019an LGTBI+ akronimoa zein esanahia ez da horrela geratuko (Mujika, 2019).

2.2. LGTBI+ mugimenduaren bilakaera hurbila Espainiar Estatuan eta Euskal Herrian

LGTBI+ pertsonen kolektiboa betidanik existitu izan da. Munduan zehar kultura ezberdinetan eman eta ematen den errealitatea da, non nortasun eta genero anitzak garatzen diren (Nieto, 1998).

Historia hurbilari erreparatuta, LGTBI+ mugimendu sozial eta politikoa bezala ezaguna dena gaur egun, 1970eko hamarkadan Estatu Batuetan ikusgarritasun eta indarra irabazten hasi zen, kolektiboko pertsonak jendartearen eta erakunde publikoen eta poliziaren jazarpen itogarriaz nazkatuta. Estatu Batuetan, 1969ko ekainaren 28an beste behin ere polizia, Nueva Yorkeko Stonewall tabernara gerturatu zen, lokaleko ateak itxi eta bertan zeuden pertsonak banaka

² Anbiguo: Izendapen hau, genital, erreprodukzio organo zein gorpuzkera genero bikotasunean identifikazioa egitea zaila denean ematen da.

identifikatzen hasi zen. Behin eta berriz beren eskubideen urraketa sufritzeaz nekatuta, identifikatzera ukatu zirela bertan zeuden pertsonak. Poliziak atxiloketa ugari egin zituen. Momentu horretatik aurrera beraien eskubideen defentsan altxatu eta matxinadari ekin zioten (Mejia Turizo eta Almanza Iglesia, 2010: 84-85). Altxamenduaren ondorengo urteetan, munduan zehar LGTBI+ kolektiboko pertsonak antolatzen hasi ziren ere.

LGTBI+ mugimendua ezin da ulertu sexualitatearen inguruko irakurketa berrien garapena kontuan izan gabe, Foucault (1977 eta 1984), edo Judith Butler (2010) bezalako autoreen eskutik. Horiek eta beste batzuk (Rubin, 1989; Stryker, 2017) diotenez, sexualitatea erreproduzitzeko ekintza bat izatetik aldarrikapenerako tresna bezala erabiltzera planteatzen hasten da, hots, gorputzen eta subjektuen eremu politikoaz hitz egiten hasten da. 1960-1970ko hamarkadetara arte indarrean zegoen sexualitatearen ulerkera aldatuz joan zen hurrengoko urteetan eta paradigma sozio-sexual³ berria eratzen hasten da orduko baloreak aldatuz doazen heinean. Diskurtso edo paradigma berriekin batera gayen, lesbianen, bisexualen eta transen irudikapenak aldatzen hasten dira apurka-apurka LGTBI+ mugimendua indartuz (Langarita, 2016).

Espainiar Estatuan eta Euskal Herrian, LGTBI+ mugimendua 1980ko hamarkadan batez ere hedatuz joan zen. Munduan zeharreko, eta bereziki Estatu Batuetako gertakariak oihartzuna izan zuten heinean, hain zuzen. Gero eta gehiago, ikerketak, liburuak, aldizkariak... kostata bada ere, ailegatzen hasi ziren (Tournier, 2004: 274). LGTBI+ pertsona erreferenteen agerpena eta ezagutarazpena ematen hasi zen, Empar Pineda kasu⁴: *“Une horretan, gainera telebistan lesbiana bezala hitz egiteko aukera sortu zitzaidan. 80.*

³ Paradigma sozio-sexuala aipatzean, sexualitatearen inguruko irudikapenez ari gara, berriak hegemonikoekin edo tradizionalarekin alderatzeko. Paradigma berrian, sexualitatearen ulerkera tradizionala, monogamoa, familiakoa eta harreman heterosexuala kolokan jartzen da eta beste errealitate batzuk azaleratzen dira. Baita, horien artean sortzen diren hierarkiak kontuan aztertzen dira (Rubin, 1989).

⁴ Empar Pineda: 1944. urtean Hernanin jaiotako emakumea da. 1964. urtean 20 urte zituelarik Madrilera joan unibertsitate ikasketak burutzera. Madrileko Unibertsitate Complutense-an Filosofia eta Letren fakultatean matrikulatu zen. Urte batzuk geroago unibertsitateetik kaleratu zuten eta Madrileko zein Bartzelonako unibertsitatean ikastea debekatu zioten, Oviedo eta Salamancako unibertsitateetan ikasketak bukatu behar izan zituen. Euskal Herriko eta batez ere Estatu Espainoleko Feminismoko eta LGTBI+ kolektiboko ikur nagusienetarikoa da Empar Pinea. Ezkertiarra eta gazteetatik borrokalaria, talde komunisten parte izan zen ere (Pikara, 2016).

hamarkadaren hasieran izan zen eta agerraldi hura zen TVE katean emakume lesbiana batek hartzen zuten lehen aldia (...) (ALDARTE eta EHGAM, 2014: 35).

1980ko hamarkadan, Frankismo osteko lehen urte horietan, pausu esanguratsuak ematen hasi zen: isilpean edo klandestinitatean zeuden pertsonak kaleetara ateratzen hasi ziren beraien borroka azalerazteko asmoz: *“Boulevard kafetegian bilduta geundela neronek adierazi nuen ghettotik ateratzeko premia, ezin ginela egun guztia hor Boulevard horretan sartuta egon”* (ALDARTE eta EHGAM, 2014: 26). Momentu horretan gizonezko homosexualak, trabestiak eta pertsona trans batzuk batez ere azaldu ziren, gerora lesbianak gehitu ziren.

Garai horretan, Euskal Herrian izan zen lehen LGTBI+ elkarte sortu zen, EHGAM izenarekin. 1983. urtean eman zen pertsona homosexualen talde honen legalizazioa, nahiz eta 1977ko otsailean 30 bat gizon elkartu eta erakundea sortzeko konpromisoa hartua zuten jada. EHGAMen lehen biltzarra 1979an egin zen, emakumeak barne (ALDARTE eta EHGAM, 2014: 106).

Bilakaera honetan aipatzekoa da emakume lesbianen errealitatea. Honen ildoan, Beatriz Gimeno aipatzen du emakume lesbianen ikus ezintasuna homosexualitate mugimendua bistaratzen hasi zenean frankismoaren ostean. Oraindik ere lesbianentzako esparrua ez zen publikoa, hortaz hauek nortasun kolektibo propioa garatzen hasi ziren (Gimeno, 2005: 187-192). Horrela, ezagutzera eman ziren lehenengo LGTBI+ pertsonak gizonezkoak izan ziren. Egoera hau testuinguruko sexismoa eta patriarkatuaren isla litzateke: *“La diferencia fundamental entre gays y lesbianas, una diferencia que tiene que ver con el lugar que ocupamos hombres y mujeres”* (Ibid.: 26). Bertan hierarkia sexualen ideia dagoela eta ideia hau, emakumeak gizonen menpe egotera daraman lehenengo funtzioa dela dio (Ibid: 203). Egile honek, Gayle Rubinek *“Reflexionando sobre el sexo: Notas para una teoría radical de la sexualidad”* (1989) lanean aipatzen duen, sexu harremanetan dagoen sexu onaren (heterosexuala, zuria, klase ertain altukoa...) eta sexu txarraren (prostitutak, sodomia, homosexualak...) arteko hierarkiaren balorazioarekin bat egiten du.

Euskal Herrian, 1980. hamarkadan lesbiana feministen asanbladak sortzen hasi ziren, garaiko feminismoaren aldarrikapen lan ildoarekin ikuspuntu kritikoa zutelako. Hala, 1987an Euskal Herriko lehenengo lesbianen jardunaldiak burutu ziren.

Esan daiteke historiako momentu askotan kolektiboaren baitan talde bakoitza bere kabuz joanda ere, aldarrikapen bateratuak badirela. Pairatzen den bazterketa, eskubide eza eta jendartean ematen den LGTBI+fobiari aurre egiteko borrokaren, mobilizazioaren, sentsibilizazioaren eta antolakuntzaren bidez.

Aldarrikapenetan, hasierako urteetan jazarpen eta eskubideen urraketa salatzen ziren. Izan ere diktaduraren azken urteetan batez ere ageriagoa zen jazarpena: *“Gizarte arriskugarritasun legea, eskandalu publikoaren gaineko araudiarekin batera, LGTBI+ inguruko edozein aldarri zigortzeko. Andrazkoak eta gizonak birgizarteratzeko zentroetan preso sartu zituzten ustez harreman homosexualak izan zituztelako. Ez zituzten atxilotzen, ez epaitzen. Indarrez atzeman eta birgizarteratze zentroetan sartzen zituzten eta horietako zentro bi baino ez zeudenez, asko eta asko kartzelatan izan zituzten preso”* (ALDARTE eta EHGAM, 2014: 116). Fernando Olmeda kazetariak *Zigorra eta luma* (2004) liburuan jasotzen dituen datuen arabera, 1970-1979 urte bitartean 1000 pertsona homosexual, gehiengoa gizonezkoak, atxilotu zituzten. Urte horietako fiskaltzaren datuen arabera, epe aldi berberean 3.600 txosten ireki ziren mila zigor ebazpen ingururekin (ALDARTE eta EHGAM, 2014: 132). Jendartearen arauetatik at bezala ulertzen zen oro zigortu egiten zen ordena publikoa mantentzeko asmoz. Horrela, *“marikak”, “bollerak”, “transak”, “gizon afeminatuak”, “marimatxuak”*... jendartearen arauetan hausturak egiteagatik zigortuak izan dira beti.

Nahiz eta *“Gizarte arriskugarritasun legea”* 1978. urtean bertan behera geratu, jendartearen eta erakundeen aldetik oraindik ere aurreiritzi eta jazarpen handia egoten jarraitu du gaur egun arte. Egia da azken hamarkadetan egoera asko irauli egin dela LGTBI+ kolektiboaren aldarrikapenen indarrari esker. 1980ko hamarkadan beldurrarekin eta haien sexualitatea libreki adierazi ezinik bizi ziren pertsona asko. Apurka, urteetako borrokarekin, esfortzuarekin eta

bizipozarekin, jendartearen arauak aldatuz joan dira eta LGTBI+ kolektiboko pertsonen egoera maila batean hobera egin.

Hasieran Euskal Herrian EHGAMek eta Emakume Feminista Lesbianen kolektiboak⁵ osatzen bazuten LGTBI+ mugimendua, denborarekin erakunde ugari sortuz joan dira, batez ere 1990. hamarkadatik aurrera. Horrekin batera, 2000. hamarkadatik aurrera legetan LGTBI+ kolektiboaren eskubideetan aurrera pausuak eman dira, jendartean ere jarrerak eta portaerak aldatuz joan diren heinean presio politikoa ere handiagoa izan delako.

Aldarrikapen eta eskubideen aldeko borroka gaur egun arte dirau. Aipatu beharra dago fronte berriak agertzen joan direla, modu berezian honako biak: alde batetik, pertsona transen errealitatea azaleratuz doa gero eta gehiago, eta bestetik, pertsona intersexualen errealitatea ere ikustaraziz doa. Azken hau ez da erraza izan, batez ere jaiotzean medikuek hartzen dutelako pertsonen sexuari buruzko erabakia, genital jakin batzuen gainekoa, neurri klinikoan arabera erabaki bat edo beste bat hartuz; horrela, gizarte araua apurtzen duten gorpuzkera guztien ebakuntzak egin izan dituzte, sistema bitarrean kokatu ahal izateko jaio berria, pertsona hauen bizipenak isilaraziz eta ezkutatzuz (Gómez, 2018).

Aipatu diren bi talde hauek, transexualak eta intersexualak, oraindik ere bazterketa eta ikus ezintasun asko pairatzen dute. Izan ere, sexualitate arauak kolokan jartzen dituzte sexu eta genero aniztasunean bizi diren pertsona guztiek, eta trans eta intersexualen kasuan zehazki genero sistema bitarra da kolokan jartzen dutena.

Jendartean aldaketak emanda ere, sistema bitarra eta hetero-araua zein sexualitatea bizitzeko “era bakarra”ren ideia oraindik ere oso gogorra izaten jarraitzen du. Horregatik jarraitzen dute elkarte anitzetara LGTBI+ pertsonak hurbiltzen. Beldurra, onarpen ezagatik, baztertuak sentitzeagatik eta inguruan erreferente gutxi izaten jarraitzen dutelako. Horren isla, Eusko Jaurlaritzako

⁵ EHGAMen barruan zeuden emakumeek talde propioa izatea erabaki zuten beraien ikusgaitasuna eta beharrak azalertzeko, Orion, 1987. Emakume Feminista lesbianen lehenengo jardunaldia burutu ostean.

Berdindu zerbitzuko eta Eraberean Sarearen tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarearen 2019ko datuak dira.

Eusko Jaurlaritzako Berdindu, gay, lesbiana eta pertsona transen arreta zerbitzuari dagokionez, 2018. urtean, 2040 kontsulta burutu ziren, horietatik 1452 pertsonak burutu zituzten eta gainerako 588ak erakundeek (Berdindu!, 2019:3). Berdinduko datuen artean Bizkaiko lurraldeari dagokionez, pertsona transen kontsultak hilabetero bataz beste 7 kontsulta gehiago egin dira 2018. urtean, guztira %4ko hazkundera izanik. Artatze hauen artean, zuzenbide esparruari dagokionez %19a izan da eta %2a LGTBI+fobia kasuak (Berdindu!, 2019: 24-26). Eraberean Sareko antenek 2018an 65 kasu artatu zituzten guztira eta hauetako 24, hau da %37a, LGTBI+fobia kasuak izan ziren. 24 LGTBI+fobia kasu hauetatik 14 diskriminazio zantzuak zituztela adierazi zuen Eraberean-Sareko arduradunak (Eraberean Sarea, 2019: 60-62).

2.3. LGTBI+ kolektiboaren eskubideetan eragina duen marko legala

Atal honetan Espainiar Estatuko eta Euskal Herriko gay, lesbiana eta transexualen eskubideei buruzko marko legalaren dokumentu garrantzitsuenak aipatuko dira, orden kronologikoa jarraituz, horien bilakaeraz hobeto ohartzeko. Horretarako, *“Eta zu zergatik ez?... mugi zaitetz sexu-aniztasuna eta giza eskubideen alde”* (Aldarte, 2008) lanean agertzen den lege bilakaera, Nafarroako 8/2017 Foru Legea, *LGTBI+ pertsonen jendarte berdintasunerako 2017ko ekainak 19koa* eta 2019ko maiatzak 30 eta 31n EHUko Filosofia Fakultatean egindako *“LGTBIQ+ Euskal Herrian”* jardunaldiko informazioaz baliatu gara.

2.3.1. Araudia nazioarte eta Europa mailan

Hasteko, eta nazioarte eta Europa mailako araudiari dagokionez, aipatzekoak dira hurrengo legeak:

- **1994/2006/2012.** Europar Legebiltzarreko, Lesbianen eta gayen eskubide berdintasuneko legea eta diskriminazioaren eta homofobiaren kontrako legeak
- **2000.** Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen, GIZA ESKUBIDEEN KARTAKO 21. Artikuluan, gutxiengo nazional, arrazial, etniko, adineko, generoko, hizkuntzakogatikiko etab. diskriminazioa debekatzen du.
- **2007.** Yogyakarta Printzipioak. Giza Eskubideen Nazioarteko legeria sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko gaietan aplikatzeko printzipioak
- **2011.** Europar Batasuneko Giza Eskubideen batzordea sexu joera eta genero nortasunaganako edozein indarkeria edota diskriminazioa gaitzesten duen ebazpena egiten du.
- **2012.** Europar Legebiltzarreko, genero nortasunen arrazoiengatik ez diskriminaziorako eta pertsona transexualen eskubideen onarpenerako legea.
- **2014.** Europar Legebiltzarreko, Europar Batasuneko lan orriko Lesbianen, gayen, bisexualen, transgeneroen eta intersexualen eskubideak bermatzeko eta homofobia, bifobia eta transfobia jendarte errotik kentzeko legea.
- **2015.** Europar Batzordeko legebiltzarreko Komisioak, Apirilak 22ko ebazpenean, Europar Estatuko gaixotasun mentalen mailaketa birmoldatzera, pertsona transak, gazte transak kontuan harturik, gaixo mentalak ez daudena aintzat hartzeko dei egiten du.

2.3.2. Araudia Espainiar Estatu eta Euskal Herria mailan

Hurrengo lerroetan LGTBI+ pertsonen eskubideekin lotura duten Estatu mailako azken legeen eboluzioa azalduko da era kronologikoan, behin Frankismo garaiko “*Ley de vagos y maleantes*” bertan behera geratu zela:

- **1978. Espainiako** Konstituzio berriak berdintasun formala dakar; izan ere, 14. artikuluan ez dela sexua, arraza, erlijioa edo beste “edozein egoera sozialengatiko” diskriminaziorik onartuko aipatzen du.
- **1979.** Arriskugarritasun Sozialaren Legea aldatzen da “homosexualitate ekintzen” aipamena bertatik kentzeko. Hala ere, oraindik ere “eskandalu publikoa” badago, eta gay, lesbiana eta trans pertsonak jazartzeko erabiltzen da.
- **1982.** Lege organikoa, Nafarroako erregimen Foralarena, bere 44.18 artikulua berdintasun politiken eskumenei dagokion hobekuntzak aipatzen ditu.
- **1983.** -Sexu-berresleipenaren- operazioa despenalizatzen da.
- **1985.** Homosexualitatea delitu bezala Zigor Kode Militarretik kentzen da.
- **1988.** “Eskandalu Publikoa” Zigor Kodetik kentzen da.
- **1994.** Gasteizen izatezko bikoteen lehenengo erregistroa sortzen da. Bikote heterosexual eta homosexualak, harreman afektiboa egiaztatzen duen kontratu zibila badagoela erregistratu dezakete. Jarraian, eta aurrerantzeko urteetan, izatezko bikoteen beste udal-erregistroak sortzen hasten dira Espainiako Estatuan.
- **1994.** Hiri Errentamenduen Legeari esker, HEL, sexu-joera kontuan hartu gabe, izatezko bikoteak lehenengo aldiz onartzen dira.
- **1995.** Zigor Kode berria sortzen da, “demokraziako Kodea” deitutakoa, honek, homofobia behin betiko zigortzen du, eta politika publikoetatik edozein elementu diskriminatzaile kentzen du.
- **1995.** Indarkeriazko eta askatasun sexualaren aurkako delituen biktimentzako Laguntza eta Diru-laguntzen Legeak izatezko bikoteak berriro ere onartu egiten ditu, beren sexu-joera kontuan hartu gabe.
- **1998.** Parlamentu andaluziarrak Osasun-zerbitzu andaluziarrak eskaintzen duen zerbitzuen gutunean tratamendu transexuala barne hartzea onesten du, eta 1999an, Genero Identitatearen Arazoen Unitatea deitutako lehenengo zerbitzu espezializatua eta diziplina anitzekoa sortu zen Malagako Carlos Haya ospitalean.

- **2000.** Nafarroan izatezko bikoteen lege autonomikoa onesten da. Lege honen barnean adopzioa dago (Uztailaren 3ko Bikote Egonkorren Berdintasun juridikorako 6/2000 Lege Forala)
- **2003.** Euskadin izatezko bikoteen lege autonomikoa onesten da. Lege honen barnean adopzioa dago (Martxoaren 20ko Izatezko Bikoteen 5/2003 Legea).
- **2003.** Neurri fiskalak, administratiboak eta jendarte ordenakoak Abenduak 30eko 62/2003 legeko 27 eta 43 artikulua eta Azaroak 23ko 10/1995 Zigor Kode legea onurako aldaketak jasotzen dute.
- **2005.** Diputatuen Kongresuak 13/2005 legea onesten du, eta honen bidez, ezkontzeko eskubidearen gaian Kode Zibila aldatzen da, eta honi esker, bi emakume edo bi gizonek beren harremana ezkontzaren bidez arautu dezakete. Beste gauza batzuen artean bikotekidearen seme-alabak adoptatzeko eskubidea barne hartzen du.
- **2006.** Espainiar Gobernuak urte honetako maiatzak 26an erreprodukzio legea aldatzen du. Guraso ez biologikoa legalki onartu egiten du seme-alaben amatasuna, bi emakumezko bikoteetan.
- **2007.** Diputatuen Kongresuak Genero Identitatearen Legea onesten du. Lege honi esker, pertsona transexualek izena aldatu dezakete erregistro zibilean, sexu organoak operatu beharrik gabe.
- **2009.** Genero nortasunagatiko diskriminazio eza eta pertsona transen eskubideak onartzen duen 12/2009 Foru legea dugu. 13/1982 lege organiko legea hobetzen du.
- **2014.** Estatu Espainiarrean genero nortasunagatiko diskriminazio eza eta pertsona transexualen eskubideen aitortza onartzen da.
- **2017.** LGTBI+ pertsonen jendarte berdintasun legea onartzen da. LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzera zuzendutako eta hauen onurako arau berrirako onurako lege onarpena. (Nafarroako 8/2017 foru legea).
- **2019.** Eusko Legebiltzarrak 9/2019 Legeak, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, 3. Kapituluak, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko aldaketa onartzen du. Bertan pertsona transen despatologizazioarako

moldaketa onartzen du. Izen aldaketa egiterako orduan, lege honek bermatzen du txosten psikologikorik aurkeztu behar ez izatea.

Aipatu beharra dago, LGTBI+ pertsonen egoerarekiko eskubideak hobera egin dutela azken urteetan. LGTBI+ pertsonentzako eskubide bilakaera, jendarte mailan emandako kontzientzia eraldaketari ezker eman da. Esan beharra dago, jendartean bilakaera positiboa, graduala eta aldakorra izan dela. Beraz, baieztatu daiteke orientazio sexualeko arrazoiengatik, genero adierazpenengatik eta identitate sexualagatik edo generoko nortasuneko diskriminazioa eza, edozein pertsonaren bizitzaren ageriko eremu desberdinei eragin dezakeena, jada araubide askotan badago. Esparru espezifiko legeek, marko arauemailea LGTBI+ eremuan sakontzea baimenduko du eta diskriminazioa gutxitzea lortzeko balio izango du (Nafarroako 8/2017 legea).

Jendartearen artean balio parekideak eta errespetuzkoak sustatzeko helburuarekin egiten dira. Gainera, gorroto-delituek legezkoa, politikoa, jendarte mailako estaldura edozein esparrutan ekiditea bermatzen saiatzen da. Aldi berean sexu- eta genero nortasunagatik pairatutako indarkeriako pertsona oro babestu egin nahi da.

Maila legalean, behintzat, eman diren aurrera pausuak dira aurrekoak, nahiz eta *“oraindik LGTBI+fobia badago eta hori egunerokotasunean, esparru txikietan nabaritzen da. Batez ere eskola esparruan, non oraindik irainak eta barreak ematen diren nerabe eta gazte LGTBI+ haiengan, ume edo gaztea hauek baztertzen diren, ume eta gazte askoren isolamendua eragiten den edo sozializatorako beldurra izaten duten nerabe eta gazte dauden. Gazte eta umeen onarpen eta autoestimua baxuak etab. sarri ikusten ditugu ALDARTEtik”* (Mujika. 2018). Izan ere, oraindik gorroto delituen eta LGTBI+ pertsonenganako aurreiritzia egoten jarraitzen du, beraz LGTBI+fobia existitzen jarraitzen duen errealitatea da, legedi formalaz haratago.

Ezin dugu ahaztu nahiz eta legeak jendarteko presio eta eraginaren ostean sortu eta eratzen direla, ere, legeak LGTBI+ kolektiboak behar duen onarpenak eta eskubide guztiak ez direla soilik marko legeetik abiatzen. Askotan legeak egonda ere, horiek ez dute LGTBI+ pertsonen biziak hobetzen. Indarrean

dagoen jendarte egituraren eredia neoliberala eta heteropatriarkala izaten jarraitzen duen momentutik, erreformek zerbait hobetu dezakete LGTBI+ pertsona konkretu batzuen bizitza. Horrekin batera, LGTBI+ pertsona askoren bizitzak egoera kaxkarrean mantentzen dira. Batez ere diskriminazioak pertsona hauen egoera ekonomikoan eta sozialean eragiten jarraitzen duelako (Spade, 2015).

Beraz marko juridikoaren irakurketa positiboa izanda ere, errealitatearen irakurketa kritikoa egiten jarraitu behar da, zuzenbidearen arloan eman daitezkeen aurrerapausoak ez direlako jendartea justu eta parekideago bat lortzera begira eman beharreko aurrerapauso bakarrak.

2.4. Gizarte Langintza LGTBI+ esparruan

Gizarte Langintzak, Gizarte Zientzien beste ikerketa jardunbide bezala, jendartean sortzen diren egoera, arazo, aztergai etab. berriei erantzuten dion neurrian, LGTBI+ kolektiboa aztergai du. Hala ere, hau ez da azken hamarkadetara arte gertatu eta beraz, oraindik bide luzea dago sexu- eta genero- aniztasuna sistematikoki ikerketetan kontuan hartzeko eta esparru honetan eskubideen bermeari bultzakada emateko Gizarte Langintzatik.

Gizarte Langintzak eremu estrukturala, soziala eta bizipen pertsonalak eragindako arazoei erantzuten lagundu nahi duen momentutik, sexu- eta genero-aniztasuna analisi elementu bezala kontuan hartu behar du (Barrio Cámara, 2016: 40). Edozein arlotan (ijitoak, etorkinak, aniztasun funtzionalak, menpekotasunak, etab.), edozein eremutan (elkarteetan, zahar etxeetan, gazte gunetan, pisu tutelatuetan, etab); eta edozein parte hartzaileekin (ume, gazte, heldu, adineko), sexu- eta genero-aniztasunak ezberdintasunen eragile izan daiteke, eta Gizarte Langintzak badu erantzukizun bat horiek ekiditen. Beraz, beharrezkoa da Gizarte Langintzaren esku-hartzea sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspuntutik jorrazteko tresnak ahalbidetzen jarraitzea (Langarita, 2016: 16-17).

Gizarte Langintzan klasea, jatorria, kultura, hizkuntza, generoa, etab. pertsonen eta kolektiboen bizi esperientziak zeharkatzen dituzten faktoreak bezala lantzen dira aspaldi, aldiz, sexu- eta genero aniztasunaren faktorea ez da kontuan hartzen. Bereziki, Gizarte Langintzan genero perspektiba zeharka txertatu eta lantzen den bezala, sexu- eta genero-aniztasun perspektiba jorratzea komenigarria da.

Aurrekoak, egun eskaintzen dugun arreta profesionala hobetuko luke. Erakundeetara edota elkarteetara hurbiltzen den pertsonarekiko, bere izena ahoskatu baino lehen, ikusten dugunarekin sistema bitarreko neska edo mutila banaketa inkontzientea burutzen dugu. Fitxa sozialetan, oraindik ere erakunde, elkarte, etab. ia guztietan soilik neska edo mutila klikatzeko estekak daude. Azken finean nahiz eta LGTBI+ pertsonak dagoela jakin, ez zaie errealitate anitzei erantzuten. LGTBI+ pertsonenganako eskubide urraketa izateaz gain, profesionalki praktika txarretan kokatzea suposatzen du (errespetu falta, deserosotasuna, mesfidantza, gairitu ezineko muga ikusezinak sortu...). Gizarte Langintzan praktika hobeagoak lirateke: neska edo mutila denik ez aurre ikusi, heterosexuala denik ez auresuposatu, janzkera edo izaeragatik generoarekiko aurreiritzirik ez izan, eta fitxa sozialetan zein sortu beharreko gainerako dokumentuetan genero anitzak kontuan hartzea, besteak beste. Baita, LGTBI+ kolektiboko elkarteak eta zerbitzuak ondo ezagutzea beste gako garrantzitsu bat da, pertsona hobeto lagundu ahal izateko.

3. LGTBI+ PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK ETA HORIETAN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIA BERRIEN ERAGINA

3.1. Sozializazio prozesuan harremanen garrantzia

Jendartean bizi garen heinetik, pertsonen arteko elkar harremanak beharrezkoak ditugu. Gizakiak izaki sozialak garen heinean harremanak gure ongizaterako ezinbesteko faktoreetako bat da. Besteak beste, garatzen ditugun harremanek ongizate sozialean zein psikologikoan eragiten dute. Horrexegatik hainbesteko garrantzia izan du sozializazio prozesuaren ikerketak Gizarte Zientzietan, batez ere XX. mendean (Simkin eta Becerra, 2013: 119).

Sozializazioa norbanakoaren bizi osoan zehar irauten duen prozesua da, non bi etapatan bereizten diren. Lehenengo etapa gaztaroan ematen dena da, norbanakoak jendartearen parte bihurtzen denean; adituen hitzetan etaparik garrantzitsuena da. Eta bigarrena, testuinguruak duen garrantziaz ohartzen garenean eta rolak, besteak beste, ikasten edo barnebiltzen ditugunean (Berger eta Luckmann, 1968). Izan ere, pertsona oro inguruarekin eta inguruko gainontzeko pertsonekin harremanetan gaude etengabe.

Bestalde, sozializazio prozesuak askotan moztu, eten edota eraldatzen doaz. Adibidez, prozesu honen etenaldi edo eraldaketa hauek LGTBI+ kolektiboko pertsonetan eragin izan dute, kopuru handi batean pertsona hauek haien sozializazioan bazterketa eta gutxiespena bezalako jendarte erantzuna jaso dutelako.

Sozializazioa ulertzeak harremanetara garamatza, zehazki harremanak nola ematen eta garatzen diren ezagutzera. Harremanak aztertzerako orduan kontuan hartu beharreko faktore asko badaude, horien artean: jarrerak, aurreiritziak, baloreak, sinboloak, motibazioak, helburuak, interesak, desirak edota jendarte ondasunen⁶ artean, jendarte sailkapenak eta mailaketak

⁶ Jendarte ondasuna norbanakoarentzako bere sare (esparru) sozialetako parte-hartzetik eratorritako baliabide multzo bezala ulertzen da. Gehiago zehaztuta, Bourdieurentzat (1985: 248), kapital soziala "onarpenerako sare iraunkorreko elkarrekiko harreman instituzionalizatuak

(generoa, arraza, adina, erlijioa, besteak beste) (Simkin & Becerra, 2013: 122). Aipatutako faktoreen artean, desiraren esparruak badu berebiziko garrantzia LGTBI+ kolektiboan eman daitezkekeen harremanen azterketan, hain zuzen ere desirak ezkutuan eta isiltasunean bizi behar izan dituztenez historian zehar. Diskriminazioa eta jazarpena dela medio, LGTBI+ pertsona askok besteekin edozein motatako harremanak garatzerako orduan zailtasun gehigarriak izan dituzte, honek eragin negatiboa izan duelarik haien sozializazio prozesuan.

Desiraz gain, harremanek afektibotasunarekin lotura oso estua daukate, zeina garatzen den pertsonen arteko hartu emana oso estua denean, normalean denboran zehar. Tartean hainbat balore daude jokoan, laguntasunarena, errespetuarena, talde jakin bateko kide izatearen sentimendua, besteak beste. Horiek harreman afektiboen bidez hedatzen dira eta norbanakoak jasotzen ditu.

Harremanak eremu ezberdinetan garatzen ditugu, familian, lagunaren artean, eskolan, auzoan, etab. Eremu desberdin hauetan bizitzako epe desberdinetan edo aldi berean biziko dira. Ekintza hau norbanakoaren izaera edo nortasunera egokitzen joaten da. Inguruarekin bat egitean, inguruko jarrerak, egoerak, sentimenduak, adierazpenak, entzunez eta behatuz gutxika bereganatzen dira eta gure subjektibitatea moldatzen doaz (Marc y Picard, 1992). Subjektibotasuna jaiotzen garen momentutik garatzen da eta hezte prozesuaren elementu garrantzitsuenetarikoa da.

Aurrekoarekin batera, sozializazio prozesuan eta harremanen bidez pertsonok autoestimua garatzen goaz eta pertsonen ongizaterako beharrezkoak ditugun gainerako baliabideak ere. Horrela, esan daiteke jendartean burutzen dugun sozializazio prozesua norbanako gisa garatzen ditugun baliabide pertsonalei lotuta dagoela.

edukitzearekin erlazionaturiko baliabide errealekiko edo ahalezko baliabideekiko gehigarria litzateke. Colemanentzat (1990: 103) aldiz, kapital sozialak funtsezko bi ezaugarri bereizgarri ditu: egitura sozialaren alderdietako bat da, eta egitura horren barruan kokatuta dauden norbanakoengan eragin batzuk errazten dituena. Sare sozialetako parte-hartzetik eratorritako baliabide hauek, informazioa, elkarrekiko konfidantzazko sistemak edo lankidetzako ustiapeneko gizarte-arauak izan daitezke, beste batzuen artean.

Berez, sozializazio prozesuan hausturak daudenean, horrek inpaktu negatiboa du edozein pertsonengan, nortasunaren eta subjektibitatearen eraketan eta harremanak sortu eta mantentzeko dauzkagun baliabideen garapenean eragiten duelako. Egoera hauek lantzen ez badira pertsonok isolamendurako joera izan dezakegu, harremantzeko abileziak eta tresnak galtzen ditugun heinean. Ildo berean, LGTBI+ pertsonak bere sozializazio prozesuan bazterketa, jazarpenak eta irainak jasotzen badituzte, autoestimua kaltetu eta harremantzeko gaitasuna mugatzen zaie. Horrekin batera, zailtasunak areagotzen zaizkie norbanakoaren izaera, sexualitatea edota nortasuna era askean garatzeko. Horregatik gerturatzen dira LGTBI+ pertsona asko ALDARTE bezalako elkarteetara, elkar laguntza taldeen bidezko arreta psikologikoa zein soziala bilatzeko (Mujika, 2018).

3.2. Informazio eta komunikazio teknologia berrien eragina harreman ereduaren aldaketan

Dakigunez teknologia berrien agerpena informatzeko eta komunikatzeko modua erabat aldatu du. Gaur egun munduan gertatzen dena berehala jakiteko aukera dugu eta aldi berean, edonorekin segituan komunikatzeko aukera dugu nahiz eta kilometro askotara egon. Faktore honek beraz, harremantzeko moduan ere eragina izan du.

Belaunaldien artean informazio eta komunikazio teknologia berrien erabileran egon diren alderaketak aztertzean, Amagoia Mujikak *“Nerabeak eta sare sozialak”* (2019) lanean aditzera ematen duen bezala, adin tarteetako arraila digitala dago: *“Batzuek eta besteek oso era ezberdinean ulertzen baitute munduan egoteko modua”*. Arrakala digitalaren inguruan, Susana Méndez eta Elena Rodríguezek, *“Consecuencias futuras del despertar de una generación de adolescentes digitales. Escenarios posibles”* (2011) ikerketan jasotzen dituzte zenbait datu: *“El 85% de las personas de 18 a 29 años son usuarios habituales de esta herramienta (sare sozialak), frente al 60% en el grupo entre 40 y 49 años, el 41% entre los 50 y 59 y el 18% de quienes tienen 60 o más años. (...) Múltiples estudios destacan, asimismo, el uso casi universal del*

teléfono móvil, siendo especialmente relevante la universalización por parte de las personas menores de edad". Artikuluan gehitzen da 30 urte beherakoen artean genero desberdintasunik ez dela nabaritzen sare sozialen erabileran. Baita, azaleratzen dute aurreko belaunaldiek aurrez aurreko harremanen bidez bilatzen zutena (entretenu, lagunekin komunikatu, baliagarria den informazioa bilatu, etab.), gaur egungo gazteek, interneten, sare sozialen eta mugikorraren bitartez ere bilatzen dutela (Ibid.: 13).

Sare sozialetatik komunikatzeko eta harremantzeko bide berrien eraginei buruz, irakaslea eta logopeda den Itziar Portablesen (2019) aburuz, hiru eragin nagusi identifikatzen ditu gazteen artean: lehena, ahozko komunikazioak eskaintzen dituen baliabideen erabilera murriztea; bigarrena, eta aurreko puntuarekin lotuta dagoena, aurrez-aurreko elkarrizketari eta interakzioari beldur hartzea, elkarrizketa ez jarraiak nagusituz (whatsapp etab. bidezko mezuen bidez); eta hirugarrena, benetako sentimenduak ezkutatzea. Era berean, hiru eragin horiek zenbait ondorio dakartzate, besteak beste: aurrez aurreko trebakuntzaren ohitura galera; lotsa edo beldur gehiago ematea filtrorik gabe aritzeak eta pantailen edo mugikorraren atzean ezkutatzea; inertziak eta ondorioei erreparatu gabe jokatzeko; pantailaren kultura deritzona, hau da, tabletaren, mugikorraren etabarren erabilera, gaur egungo komunikazio kanal nagusienetarikoa izanik, *"komunikatzeko gaitasunak ematen duen autonomia galtzen da: eskatzeko, galdetzeko, kexatzeko, edozer adierazteko"*.

LGTBI+ kolektiboari erreparatuta, teknologia berrien agerpena eta erabilera masiboa gertatu baino lehen, hots, 1980ko eta 1990eko hamarkadetara arte, jende gehiena hirian, auzoan edo herrian dauden espazio publikoetan harremantzen zen. LGTBI+ kolektiboko pertsonak aldiz historian zehar eta herrialde ezberdinetan espazio klandestinoetan bildu behar izan dira, eta egun ere hala geratzen da leku askotan.

Azken bi hamarkadetan den aldiz, 2000koa eta batez ere 2010ekoa, topaketa lekuak gero eta birtualagoak bihurtu dira, eta aplikazio informatikoak harremanak izateko ezinbesteko tresna bihurtu dira askorentzat, batez ere

pertsona gazteentzat. LGTBI+ kolektiboan hala gertatu izan da ere. FELGTB⁷ elkarteko buruaren arabera: *“Cualquier chaval de 13 o 14 años que tiene dudas o empieza a sentir curiosidad usa estas aplicaciones. Aunque quizá la más conocida por todos sea Grindr, no fue la primera. El precedente hay que buscarlo en los albores del nuevo milenio, concretamente en 1999, cuando Gaydar se convirtió en el mayor punto de encuentro para gays y homosexuales de la Red. Antes eso no existía, eso era soledad”* (Sarabian zitatu, 2016).

Ildo berean, FELGTB elkarteko komunikazio arduradunak, Cristina Morenok, hala dio: *“Podemos decir que Gaydar marcó un precedente en las relaciones sociales y de esta tendencia empezaron a surgir otras aplicaciones destinadas a públicos más sectoriales. (...) Según lo que se busque, una aplicación es más efectiva que otra. Grindr se inclina más por el sexo rápido, Wapo-Wapa para mujeres- por los contactos y las relaciones de amistad, Manhunt pasa por ser una red social para la comunidad gay”*, aipatzen du (Ibid.).

LGTBI+ kolektiboko pertsona gehienak adierazten dute teknologia berrien agerpena komunikatzeko eta harremanak izateko baliagarriak izan dela. FELGTB lehendakaria eta kidea den Genereloren esanetan, adibidez: *“Sirven para expandir el contacto, eso es evidente. (...) En España, el colectivo LGTB ha estado estigmatizado y perseguido hasta 1986, pero no fue hasta 1995 que la Ley de Peligrosidad y Rehabilitación Social se derogó por completo. (...) Tanto en los 80 como en los 90, los bares y pubs ‘de ambiente’ eran los sitios comunes donde conocer gente. La juventud de ahora no entiende lo que se pasó, cómo teníamos que vivir. El ingenio que había que echarle antes, el ejercicio de ‘agudización’ de la percepción para pillar cualquier tipo de mensaje que hablara subrepticamente de homosexualidad, el ‘este entiende’, cosas así”* (David Sarabia, 2016).

FELGTB lehendakariaren aburuz, sare sozial berriak oso eragin positiboa izan dute: *“Las apps vinieron a liberar a la comunidad LGTB de las leyes restrictivas de cada estado. También, a presentar un nuevo paradigma y a permitir que todos aquellos que no se atrevan a salir del armario sigan dentro con la puerta*

⁷ Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Trans y Bisexuales. <http://www.felgtb.org/>.

entreabierta” (Sarabian zitua, 2016). Azken hau, bere sexualitatearen edo genero nortasunaren inguruan ezer esan nahi ez duen pertsonentzat irteera bat bezala har dezakegu.

LGTBI+ kolektiboarekin jarraituz, teknologia berrien bidez harremantzeko modu berriek bere alde negatiboa izan dezakete ere. Adibidez, homosexualitatea delitua den herrialdeetan teknologia berrien bidez kontrola hedatuagoa egon daiteke. Kamerunen, Roger Mbebek testu mezu baten bidez lagun bati adierazi zion maite zuela eta handik gutxira atxilotu eta gartzeleratu zuten (handik gutxira hil zen). Iranen, homosexualitatea heriotza zigorrarekin zigortzen den herrialdean, Grindr segurtasun arrakala bat izan zuen eta 200.000 mila gizonezko homosexual agerian utzi zituen. Marokon, gizonezko bi erasotuak izan ziren eta hauek odolez beteta paseatu zituzten kaletik erasotzaileak ekintza bortitza grabatzen zuten bitartean, ondoren youtuberra igo zutelarik (Sarabia, 2016).

Muturreko ondorio negatibo horiengana jo gabe ere, komunikazio eta teknologia berrien erabileran arrisku batzuk egon daitezke. Sare sozialetako zenbait aplikazioek harreman afektibo-sexualak izateko itzaropideak eragiten dituzte eta horrek zenbait frustrazio sortarazi ditzake. Sare sozial horiek gehienetan sexu bizkor eta kontsumista burutzerak bideratuta daude, eta ez harreman afektibo sexualetan sakontzera, pertsonen garapenerako onuragarriagoa izan daitekeena. Harremanetan frustrazioek autoestimua kaltetu dezake ere, ezinegona areagotu, eta denboran irauten badute, jende ugari depresioan murgiltzen da. LGTBI+ kolektiboaz haratago gertatu daiteke hau noski, baina kontuan izan behar dugu kolektibo honetako pertsonen zailtasun gehigarriak izaten dituztela harremanak izateko jendartean dirauten aurreiritzi eta jarrera ezkorrek direla eta.

4. LGTBI+ KOLEKTIBOAN EMATEN DIREN HARREMANAK BILBON

4.1. Testuingurua

Esan bezala, 1969ko ekainaren 28ko Stonewalleko matxinadaren ondorioz, eta munduko beste hainbat herrialdeetan bezala, bultzada handia izan zuen LGTBI+ mugimenduak Espainiar Estatuan eta Euskal Herrian.

Espainiar Estatuan 1970-1971 urteetan LGTBI+ kolektiboko lehenengo elkarteak agertu zen, Sexu Berdintasunerako Elkarte Homofiloa (AGHOIS). Elkarteak modu klandestinoan aritzen zen bi talderen bitartez, bata Bartzelonan eta bestea Madrilan. Haien helburua, sortzaileetariko bat izan zen Armand de Fluviàren arabera, *“homosexualei kontzientzia harraraztea zen, beren eskubideak aldarrika zitzaten eta gizarteak horiek onartzea eta aitortzea lor zezaten”*. Franko hil ostean, LGTBI+ kolektiboko egoera arindu egin zen, hori dela eta, elkarte gehiago sortu eta lokalak irekitzen hasi ziren, bai eta liburu eta aldizkariak kaleratzen eta argitaratzen ere.

Euskal herrian, LGTBI+ mugimendua indarra hartzearekin batera, talde eta elkarteak agertzen hasi ziren. Bilbon, 1977. urtean bi elkarte sortu ziren: Euskadiko Gay Gazteria (JGE), sortu eta gutxira desagertu egin zena, eta gaur egun arte irauten duen Euskal Herriko GayLes Askapenerako Mugimendua (EHGAM). Era berean, kideen artean lesbiana taldeak zeuzkaten emakume-elkarte feministak sortu ziren, adibidez ESAM kolektiboa, LUMATZ, A.L.A, AGERIAN LESBIANEN TALDEA eta Emakume Feminista Lesbianak (Villar, 2005: 30).

Urteak pasata, Euskal Herrian talde eta elkarte gero eta gehiago sortuz joan dira: ALDARTE, ASOCIACION T-4, COMISION ANTISIDA BIZKAIA. EHGAM, ERRESPETUZ, GARAI PEN, GUZTIOK, HEGOAK, ITXAROBIDE, OZEN LGTB LIGA, MEDEAK, SEHASKA, INTIFADA MARIKA, IRIS PROIEKTUA, BIZIGAY, ORTZADAR, NAIZEN, besteak beste. Elkarte eta talde hauen artean, erakunde politikoaren ideologiarekin bat egiten dituztenak aurki ditzakegu, adibidez ORTZADAR EAJri lotuta, BIZIGAY Eusko Alkartasunari lotuta eta EHGAM

Ezker Abertzaleari lotuta, ezagunenak edo agerienak aipatzearren. Azken urteetan, trans pertsonen egoera lantzeko eta bistaratzeko beste elkarte batzuk sortu dira, adibidez TRANSEXUALIDAD EUSKADI, ERRESPETUZ, NAIZEN eta SEHASKA (Eranskinetan, lehenengo puntuan, Euskal Herriko LGTBI+ elkarten taulan informazio zehaztua ikustarazi dezakezue).

Elkarteez gain, koordinadora edo plataformak eratuta daude: 28J Koordinadora, Bizkaia mailan aritu izan dena azken 20 urteetan LGTBI+ kolektiboko elkarte anitz batuz eta Ekainak 28ko akzioak zein beste aldarrikapenak aurrera ateraraziz. Azken urte honetan, 2019an, Harro plataforma sortu da.

Herri mugimenduko aldarrikapenen eta elkarte hauen eraginaren ostean, Euskal Erkidegoan erakundeek ere beren tokia izateko eta kaleko aldarrikapenei erantzuna emanez, BERDINDU! Zerbitzua eta Eraberean Sarea sortu zuten. Lehenengoa arreta eta informaziorako zerbitzua da. Bigarrena LGTBI+, herri ijitoa eta migrante kolektiboen diskriminazioaren kontrako sarea da.

Ezin ditugu aipatu gabe utzi LGTBI+ kolektiboari oihartzuna eman edo sostengua ematen dioten gaur egungo medioak, adibidez: BLUE aldizkaria, erakundeen baitan kokatzen dena, PIKARA MAGAZINE, GALDE, MUNDUKO EMAKUMEAK, PUEBLOS... 1990eko hamarkadako SORGINAK aldizkaria aipatu beharra dugu ere, urte askotako lana burutu ostean, gaur egun ez duguna.

4.2. LGTBI+ pertsonen arteko harremanak belaunaldi ezberdinetan

Lan honetarako elkarrizketatutako 25 urtetik gorako pertsona guztiek harremanei, edozein motatakoak, garrantzi handia ematen diote. Berez izaki soziala garen heinean, gure garapenerako beharrezkoa delako.

“Me parece súper importante el socializar, el ponerse a compartir experiencias, tanto de amistad como amorosas y emocionales. También es importante con las personas con las que trabajas, las relaciones laborales, al final son muchas horas, igual con la familia, tienes que

también relacionarte de manera positiva, constructiva y entiendo la relación como una construcción de algo poco a poco, que a pesar de que las relaciones no son perfectas, siempre hay conflictos, pero de ese conflicto que se aprenda, que se construya y se vaya para arriba” (I.L.).

“Al final supongo que irá en la personalidad, pero yo creo que somos seres sociables, o sea, yo siempre he sido muy de calle y de hablar y de expresarme, y sé de gente que es más para dentro, pero entiendo que necesitarán una caricia, aunque no hablen, o sea, yo creo que hay una necesidad de relacionarse, vamos, la gente que está sola está mal, la soledad esa de los ancianos, o del migrante que está en un sitio nuevo, nunca lo he visto como algo que ocurra porque quieres, es otra cosa, porque yo soy también bastante “caserillo”. Pero es súper importante relacionarse con la gente” (X.D.).

“Relacionarse con las personas es imprescindible porque somos personas sociales y porque vivimos en una sociedad. En Japón y así hay gente que vive dentro de sus habitaciones, yo no podría vivir así, he sido bastante sociable desde que soy pequeña, para mí es indispensable mantener relaciones con gente de todo tipo, luego dentro de las relaciones hay diferentes tipos, una cosa es mantener relaciones afectivo-sexuales, que esas son necesarias pero no son imprescindibles en esta vida, pero las relaciones de amistad entre iguales, todo eso para mí es muy importante” (C.R.).

“Siempre me ha parecido que estar con más personas, con las que compartes cosas, como orientación o gustos o política, da sentido a tu vida. Siempre he estado en algún grupo, desde el de monte cuando era adolescente, hasta ahora. Es como que te da vida, aire nuevo, poder compartir momentos, unas risas, cuando se está mal y notar que tienes una(s) persona(s) donde apoyarte, compartir eso le da sentido. Te sientes acogida, querida, respetada, no sé, como si tuvieras cobertura y pilas, que cuando se te descargan te ayudan a cargarte esa energía” (A.V.).

Gazteagoen artean, zehazki 14 eta 18 urte bitartekoen artean, harremanak garrantzitsuak direla aipatzen dute elkarrizketatutako 11 gazteetatik 9k. Honakoak dira haiek emandako arrazoi batzuk:

“Es importante tener relaciones, de las que sean, cuando tienes problemas poder pedir ayuda, y los problemas resultan más fáciles de resolver cuando estas acompañadx” (G.1).

“Se necesitan momentos de estar solx, pero como seres sociales que somos, necesitamos apoyo por lo que afecta mucho no tener ese apoyo de gente que te aprecia y aprecias” (G.2).

“Las relaciones son importantes porque no se puede vivir solx, es una necesidad pero sin que sea depender” (G.3.).

“Las relaciones son importantes pero las malas, las tóxicas no se necesitan” (G.4).

“Las relaciones son importantes para llevar mejor el día a día, o si tienes cualquier problema para pasar esos momentos mejor” (G.5).

Gazte batek aipatzen duela harremanak berarentzako garrantzitsuak ez direla, eta aldiz, nire ustez hausnarketa on bat egiten du harremana eta afektua desberdintzaren artean, afektuak garrantzia kokatuz.

“Tener la independencia, en el sentido de poder vivir sin estar con la gente, aunque el afecto si me resulta importante” (G.10).

Hala ere gazte honek aurreko adierazpenetan bai nabarmentzen du afektu hitza. Afektua edo atxikimendua bada galdetzean, gazte honek:

“Es el afecto, que el apego que no me resulta tan importante pero el afecto si es importante (subraya)”. (G.10)

Gazte honen afektu eta atxikipena adierazpenen atzean samintasun sentimendua eta ukapena sentimenduak islatzen ditu. Hauek denbora luzean eskatzen eta bilatzen aritu balitz azken urteetan.

Gehiengoarentzat harremanak garrantzitsuak izanik, ezberdintasun batzuk azaltzen doaz harreman horiek garatzeko guneak aztertzerako orduan. Orain dela hamarkada batzuk, 1980 eta 1990 hamarkadetan hain zuzen, garaian LGTBI+ kolektiboko gazteak, Bilboko kasuan, batez ere Alde zaharreko taberna batzuetan biltzen ziren, Badulake eta El Balcón de la Lola esaterako.

“Los bares y/o organizaciones te daban la posibilidad de relacionarte, primero se acogía a la gente nueva igual que nos acogieron. Luego ofrecían un espacio social donde tener amistades, círculos de amistades de intensidades diversas, entendiendo como amistad intensa la que se tiene con una(s) persona(s) de forma afecto-sexual. En estos casos, al ser primero el círculo de amistades, en el momento de una ruptura de pareja etc. no te quedabas sola, como puede estar ocurriendo en estos tiempos” (L.M).

Apurka, tabernez eta elkarteez gain, aldarrikapenatarako gero eta gehiago espazio publikoa erabiliz joan zen kolektiboa, modu horretan kalea bera harremanatarako gunea bilakatuz. Egun, esparru publikoan harremantzeko Bilboko hirian dauden guneak askoz gehiago dira. Bilboko Udalak hasiera batean baina gerora ALDARTEK egindako hurrengo plano honetan erakutsiko ditugu LGTBI+ kolektiboak eskura dituen sozializazio esparru publiko batzuk, nahiz eta hemen agertutakoak batez ere aisialdiarekin lotzen diren.

Mapa 1. Bilboko LGTBI+ guneen plano⁸

Restaurantes, Tabernas y Cafés

- 1 Bilaltza • C/Irene,1
- 2 Txomin Barutxo • C/Barrenkale, 40 - Tel. 94 415 27 88
- 3 Zulo • C/Calle de la Torre • C/Zulo Taberna
- 4 Jasanak • C/Sanera, 10
- 5 Portu Berri Barría • C/Iruñada, 12 - Tel. 944 15 43 54
www.portuberri.com info@portuberri.com
- 6 Nervión Café-Bar • C/La Maja, 7
- 7 TatríBoga • C/Santa María, 13 - Tel. 944 157 074
- 8 Café La Merced • C/Íbiza, 16 - Tel. 94415 02 67
- 9 Kasiko • C/Santa María, 16 - Tel. 94 416 03 11
- 10 Lamiak • C/Pelota, 8 • C/ Cure Lamiak
- 11 Corrosión Zubiburu • Museo Mirazur (bajo puente San Antón) - Reservas 691 262 161 • C/Zubiburu
- 12 Kukuakak • C/Barrenkale Barrena, 18 - Tel. 94 416 38 07 • C/Kukuakak
- 13 Zorpi • C/Barrenkale Barrena, 18
- 14 Amotio • C/Barrenkale 22 - Tel. 94 415 09 28
- 15 Amotio • C/Barrenkale 1 (frente Guggenheim) - Tel. 944 24 69 33 - www.amotio.es
- 16 Restaurante Aji Colorado • C/Barrenkale, 6 - Tel. 944 15 22 09 • C/Rest. Colorado
- 17 Restaurante Lurrina • C/Barrenkale Barrena, 18 - Tel. 944 16 32 77 • C/Restaurante Lurrina

Copas

- 18 Séptimo cielo • C/Pelota, 4 - Tel. 944 16 67 77 • C/Séptimo Cielo septimocielo@biliboo.com
- 19 Badulako • C/Hernani, 10 - www.badulakobiliboo.com
- 20 El Balón de la Lola • C/Bal. 10 • C/El Balón De Lola
- 21 Pin Up • C/Barrenkale, 11 - Tel. 946 54 87 19 • C/ Pinup Barrenkale Bilbao
- 22 La Korrala • C/Barrenkale, 4 - Tel. 944 15 81 79 • C/La Korrala

Otros

- 23 Hotel Biliboo Jardines • C/Íbiza, 9 - Tel. 94 478 82 10 - www.hotelbilboogardines.com
- 24 Erotic Shop • C/Pelota, 2 - Tel. 94 416 99 93 • www.sasulux.es
- 25 Sauna Ederren • C/Costa, 10 - Tel. 94 405 23 03 - www.ledent.es
- 26 Sauna Ego • C/Nicolás Alarcón, 3 bajo (entrada galería conserje) - Tel. 94 470 07 77
- 27 Pedro Párral • C/Quilomasa/Chiniquit (Cda Druak) - Tel. 94 416 00 58 • 699 476 154
- 28 La Mañada • C/Íbiza, 2 - Tel. 94 415 20 89
- 29 Espinosa • C/La Torre, 15 - Tel. 944 79 50 75 - atom@espinosades.com
- 30 Encuentros Mariposa • Mercado de la Ribera, Pta. 135 - Tel. 944 16 65 73 - www.mercadodelaribera.net
- 31 La Iguana • C/ C/Barrenkale, 4 - Tel. 944 15 51 48
- 32 Perfumada • Plaza Circular, 2 bajo (Estación de Abando) - Tel. 944 26 52 53 • C/Perfumada Bilbao Abando

Asociaciones y Servicios de Atención

- 33 Aldarte • Centro de Atención C/ Barrenkale 19 - Pta. 8-9 - Tel. 94 403 72 96 - aldarte@aldarte.org www.aldarte.org
- 34 Estaliluz • C/Barrenkale, 10 - Tel. 944 15 51 48
- 35 Bilibogay • Paseo del Arsenal, 2 - 3º - bilbogay@bilbogay.org
- 36 Comisión Ciudadana Anti-Sida de Bilbao • C/ Bailén, 6 (en la) - Tel. 94 416 00 55
- 37 EHGAM • www.ehgam.org - Tel. 605 712 253
- 38 Hegoak • C/Doc de Moya, 7 bajo - Tel. 94 415 62 58 - info@hegoak.com www.hegoak.com • C/Hegoak alde
- 39 Asociación 14 de lucha contra el SIDA • C/Alda Urquijo, 28 - 4º A - Tel. 94 422 72 40 - marcos@asociacion14.org www.asociacion14.org
- 40 Marea Mirindak • http://marea.mirindak.blogspot.com.es/ • C/Bornakale Las
- 41 Errezpetuz • Tel. 675 45 93 17 - www.errezpetuz.blogspot.com
- 42 Ouztik • C/Barrenkale - Tel. 647 976 001 / 653 721 725 • C/Ouztik Sosa Antzarsua

Legend: Colección, Video, Bar/Pub, Zona baño, Restaurante, Doccas/Pechos

Iturria: ALDARTE, 2002.

Esparru hauek, gehienbat Bilboko Alde Zaharrea kontzentratu egiten dira. Beste batzuk San Francisco auzoan daude. Hala ere, Bilboko Abando, Indautxu bezalako auzoetan guneren bat ere topatu dezakegu.

Esparru publikoak ugarituz joan diren arren, ALDARTEko Gazte taldeko kideei (11 pertsona, 14 eta 18 urte bitartekoak) galdetu zaienean harremantzeko guneengatik, hauen erantzuna helduena baino anitzagoa izan da. Elkarrizketatutako gazteek aurrez-aurreko edo sare sozialen bidezko harremanen arteko bereizketa egin dute. Hasteko, gune publikoei dagokionez, tabernak ez diren bestelako eremu edo guneak aipatzen dituzte. Bestetik, sare sozialen erabilera nabaria da haien artean, batez ere Whatsapp, Instagram eta Twitter.

⁸ Aipatu beharra dago 2000. urtean egin zela mapa honen azken eguneraketa. Beraz plano honetan agertzen diren lokal, gune... batzuk beharbada gaur egun ez daude, edo beste batzuk egon daitezke.

Taula 1. LGTBI+ gazteen harreman guneak

Aurrez-aurrekoak	Sare Sozialak (birtualak)
Aldarte (7)	Whatsapp (11) Komunikazio Sarea
Eskaut / Aisialdi Taldeak / Gurutze Gorriko Taldea (2)	Instagram (8) Harreman Sarea
Harremanak (Herria, kuadrilla, ikastola, auzoa) (11)	Twitter (2)
Kirol Taldeak (Arraun/futbola) (2)	
Kulturalak (Antzerkia / Dantzak...) (2)	
Harreman solteak (2)	
Bidaietan egindako harremanak (2)	
Unibertsitatea (1)	

Iturria: Egileak landua.

11 gazte hauek whatsapp komunikazio sarea erabiltzen dute eta 8k harremantzeko *Instagram* sarea erabiltzen dute. Hala ere, modu presentzialean harremantzeko eremu edo lekuek ezinbesteko papera jokatzen jarraitzen dute haientzat. 14 eta 18 urte bitarteko gazte hauekin alderatuta, 25 eta 35 urte bitartekoek kalean edo tabernetan gehiago harremantzen dira.

“Me relaciono con la gente pues como todo el mundo, amigo de mis amigos o gente que coincides en un bar o que queda cerca, o por algo surge la conversación y hablas, así como más analógico, porque claro yo soy del 79” (X.D.).

“Yo no he tenido ni Tinder ni historias de estas, entonces a mí eso no, de chatear online y eso no es mi estilo, no es mi historia, yo soy más del cara a cara en las relaciones. Cuando no se puede pues no se puede, yo sigo manteniendo relación con gente que vive en Inglaterra o en México o así, pero eso a mí, cuando tengo que hablar por teléfono y así estas historias no me gustan. Cuando estuvo una amiga mía en la cárcel pues lo hacía por carta, o sea, bide horiek, siempre he tenido que utilizarlos

cuando han sido expresamente necesarios para relacionarme, el uso que hago yo de las redes sociales, pues a ver, no te voy a decir que no las uso, pero tampoco te voy a decir que se las personas más activa del mundo. (...) Soy de cara a cara, de hablar, de tomarnos algo, un café, unas cervezas y ponernos al día en un bar, en una plaza, o incluso en casa eh! que al final en casa tienes que tener, cuando empecé a vivir sola pues ahí sí, en casa, invitando a casa a mi cumpleaños quien me guste, mira mis amigas a cenar y hago yo la cena, esas cosas sí que me gustan, pero yo soy muy callejera” (C.R.).

